




Argazkia Martin Zabaletarena da, bideo iruditik aterea.

Gailurra

Maiatzaren 11n, eguraldiak aldartea aldatu orduko, Lorente eta Martin hirugarren kanpamentura igo ziren, eta biharamunean Hego Lepora, Pasang Temba, Phurba Kitar eta Ang Nima sherpekin batera. Takolo, hankako minez, kanpamentu nagusira jaitsi zen, Kike de Pablok lagunduta. Hego Lepokoek ez dute inoiz ahaztuko maiatzaren 13ko afaria: elurretan norbaitetik utzitako babarrun lata bat eta Tibeteko arkume haragi lehorra. Goizeko 2:30etan, babarrunek emandako indarra-ekin, Zabaleta, Lorente eta hiru sherpak atera ziren garrantz. Hiru ordu geroago, Lorentek buelta hartu zuen: «Elur oso sakona zegoen eta nekez egin genuen gora. Martin ni baino indartsuago zihoan, eta, 8.300 metrotan, konturatu ginen Martinek oxigeno guztia bukatu zuela, ihesa zeukala bonbonak. Gure botilak eman eta berak segitu zuen. Martin zen irits zitekeena», azaldu du Lorentek.

Lorentek ondo antzeman zion Martinen indarrari, eta Pasang Tembak ere bai. Hego Tontorrera iritsi eta, tontorreraino doan ertza ikusirik, sherpa txikiak, izu antzean, onena bueltatzea izango zela agertu zion Martini: hernaniarra, ordea, ez zegoen horretarako prest, 12 urteko desira eta ilusio guztien tontorra ez baitzen sekula hain gertu egon. Martin beti buruan, Hillary eskailera, elurrezko miño amaitezin batzuk eta... han zegoen txinatarren tripodea, Everest gailurra. «Egin dugu, egin dugu! Gora Euskadi Askatuta!...». Maiatzaren 14a zen, arratsaldeko 15:00ak Nepalen; Euskal Herrian, hamaiketakoaren ordua.

Gorako bidea gogorra izan bazen, behe-rakoa are latzagoa, oinaze eta penitentziaz betetako gurutzebidea. Egia esan, berandutxo hasi ziren behegantz, oxigenoa agortu zitzaient; Pasang Temba, ezinaren mugan, metro batzuk behera amildu zen, eta Zabaletak indarka ekarri zuen berrira ertzer... Ilunpean, elurpean, iraupen zentzu hutsez, Hego Tontorraren azpian ikusitako artesiarekin gogoratu zen Martin. Builaka, keinu bidez, aurpegia okertuz, «han pasatu behar dugu gaua, Pasang», esan zion Marti-



Nin Temba, hego tontorrean, Garaioak ateratako argazkian.

nek sherpari. Walkia hartu eta Hego Tontorrean geratzen zela lotan jakinarazi zien Zabaletak beheko. Hantxe eten ziren ospakizun, pozkario eta besarkada guztiak. Rosenek eta Garaioak, beheko kanpamentuan, walkia hartu eta euren gaupasarik luzeena egin zuten. «Uste genuen ez zela jaitsiko. Garaioa eta biok gau osoa esna pasatu genuen, walkie-talkie-tik hitz egiten, lapikoekin soinua ateratzen, indarrak ematen, lo har ez zezan. Eta hurrengo goizean berdin. Nire ustez, Martinek walkie-talkie-ari esker lortu zuen jaitea. Gogoan dut Garaioak nola esaten zion indarrak buruan zeudela eta al-

txatzeko. Azkenean, gorriak ikusita, baina lortu zuen». Rosenen hitzak dira.

Lortu zuen, bai. Lorentek eta Martinek oraindik gogoan dute Hego Lepoko besarkada hura, lehertzeko zorian —kezka bat eta nekez bestea— egondako bi barren haiek isuritako malkoen artean. Eta berdin hirugarren kanpamentura jaistean. Felipe Uriarte, emozioari pixka bat eutsiz, Larruquert zinemagilearen aginduarekin oroitu zen une haietan, adi egoteko filmazioarekin: «Momentu berezi horietako bat zela pentsatu eta filmatu nituen Xabier eta Martin, besarkaturik. Gero, kamera utzi eta besarkatu nuen Martin». Eta kanpamentu nagusian besarkada gehiago: taldekide guztiak, Martinen anaia Jon Zabaleta... Eta Euskal Herrira iristean, beste mila besarkada, musu, zorian eta txalo, mila omenaldi, ongiatorri eta afari. Izan ere, herri oso baten ilusioa eraman zuten 74ko eta 80ko espedizio haiek Everest tontorrera, eta herriak ilusio horrekin berekin hartu zituen mendizaleak etxean.

Maiatzaren 14a data bat, mugarri bat baino ez da, big bang bat. Benetan inportantea leherketa horrek eragindakoa izan da. Martinek, Lorentek, Felipek eta beste guztiek diote Everesteko gailurrak zerbait zartatu zuela euren barruan eta Euskal Herrian ere bai. Zartatze horrek aske utzi eta bultzatu zituen bai beraiek eta bai beste euskal mendizale asko, hango eta hemengo mendi handietara. 20 urteotako lekuko eta protagonista pribilegiatuak izan dira bi espedizio haietako kide gehienak.

«Iruditzen zait
gaur egun jendea
ez doala
Everestera
mendia barruan

sentitzen duelako,
erakusteko baizik,
trofeo bat bezala»



Josep Rodríguez

...rako hastean, Pasang Temba
...in zen, oxigenoa bukatu zi-
...n, gaua gainean zenuten...
...asangi erreparatu nion, ba-
...nola zihoan; oxigenoa bu-
...veraman. Aurrera pasatzeko
...nik aseguratuko nuela.
...banean garrasi bat entzun
...ta soka tenkatu zen. Eske-
...piolet nituen eskuan, eta
...eutsi nion. 10 metro behera
...zen, eta indarka igo behar
...en ertzer. Elkarri ulertzeko
...lan izan genuen, nik ez bai-
...ngeleseiz piperrik eta berak
...era-mara. Elurra hasi
...on hego tontorrean pasatu
...nuela gaua.
...tik pasatu zitzaizun zuk se-
...azken batean bion bizitza
...telako arriskuan jartzen?
...iz, ez zitzaidan burutik pa-
...itza. Handik nolabait ate-

rako ginela pentsatzen nuen, arras-
taka eraman behar banuen ere.

• **Taldekideei hego tontorrean ge-
ratzen zinela esan zenienean, dan-
bateko latza izan zen eurentzat.**

Bai, kezka eta tristura sumatu
nituen. Ezin al genuen behera jaitsi
galdetzen zidaten, eta nik ezetz, Pa-
sang ezin zela mugitu, ez zuela mu-
gitu nahi esaten nien.

• **Hurrengo goizean, gogoratzen di-
tuzu Garaioa eta Rosenen hitzak?**

Eguna argitu zenéan talkia piztu
eta sekulako poza hartu zuten, eta
nik ere bai, nire ahotsa entzutean
eta nik haiena. Bizirik ginen, baina
ezin nintzen altxatu ere egin; inda-
rrak buruan zeudela esaten zidaten
eta sherpak laguntzera zetozela.

• **Hego Lepora iristea Maria Cristi-
na hotela iruditzea ere?**

Hego Lepora iristea izugarria izan
zen: Lorente eta sherpa guztiek
haur txiki bat bezala hartu nindu-

ten magalean; botak kendu, jate-
koa eman, zakuan sartu... Maria
Cristinan baino hobeto nengoen.

• **Everesteko fama hori gogorra
ere egingo zitzaizun inoiz.**

Ba, hori egia da. Everestek la-
gundu dit ezagutarazten eta nire
bizimodua mendira bideratzen.
Bestalde, Everesteko pasarte hu-
ra pasatzeko gogoia ere askotan sen-
titu dut, nahiz eta ulertzen dudan
bere garrantzia. Jendearen oso ba-
rruan dago oraindik Everest hura.

• **Entzuna dizut gaur egun 30 urte
izanez gero ez zinatekeela Everes-
tera joango. Zergatik?**

Everesten giroa asko aldatu da.
Iruditzen zait jendea ez dela Everes-
tera joaten barruan sentitzen due-
lako, erakusteko baizik: hau egin
dut, edo bestea egin dut, trofeo bat
bezala. Badaude mendi txikiagoak
eta politagoak, gehiago erakartzen
eta betetzen nautenak.